

## LOREAK BEHARREAN, XIXAREAK! Ezusteko gertaerak ikasketarako aberats.

Gaur goizean, Faustok, Nikolaxen aitak, lurra bildu du baserrian, ikastolan lore batzuk landatzeko. Haurrei zer egin behar genuen adierazi eta gero, berehala bildu dira ekintza horietarako ohiakoa dugun txokoan.

Papera zabaldu dugu lurrean, eta bertan loreak, lorontziak eta lurraren poltsa jarri ondoren, poltsa barrutik lur bigun, goxo eta beltz-beltza ateratzen hasi gara.

Bat-batean, Udanez, guztiz emozionatuta eta irribarrez: “*xixare bat, xixare bat!!*” esan du. Beste haurren begirada eta arreta xixarearengana zuzendu da berehala. Begira ari garela, bigarren xixarea agertu da lur artean eta Axier eta Ikerrek, biek batera: “*beste bat, beste bat!!*”

A ze poza, harridura, urduritasuna eta emozioa!

Aiorak eskua luzatuz xixarea haru du. Bere behatz artetik mugitzen da eta ez dio begirik kentzen, barrez. Jarraian Nikolax animatu da eta beste bat hartu du. Eskuartean dauka luze-luze. Lagunak begira ditu.

Hemendik aurrera xixareengan dago haurren interesa. Beraz, lur gehiago ateratzen jarraitu dugu xixare gehiago ikusteko asmoz eta halaxe, lur tartetik agertzen hasi dira poliki-poliki.

Iker oso emozionatuta dago, erdi barrez. Erdi garraxika adierazi du bere poza baina ez du ukitu nahi. Maialen, Garazi eta Leire begira-begira daude baina horiek ere ez dira animatu. Lidek berriz, bere behatza zuzendu du xixarearengana eta ukitu dituenen barrez eta urduri atzera egiten du. Behin eta berriz egin du gauza bera baina ukitu nahi dituen arren, ezin du.

Mattinek lur artetik hartu ditu eta paperaren gainean jarri ditu banaka-banaka. Azkenean hamalau zizare topatu ditugu!

Umeen burutxoak hor daude elkarren kontra xixareak begira ia-ia sudurrearekin ukitzen dituztela:

- *zenbat mugitzen diren*
- *bi eta lau daude*
- *txikia da, ez handia*
- *hartuko dut*
- *ay, ay, ay, koxka egingo du...*
- *txiribuelta egin du*
- *losune, beste bat....*

Eta loreak, non daude? Non daude lorontzian jarri behar genituen loreak?

Barrea eta algara da nagusi. Xixareekin gustura daude eta loreak geroxeagorako utzi ditugu. Lehendabizi xixareen afera bukatu behar dugu.

Potto batean sartu ditugu lur eta guzti eta ondoren bai, gure gela apaintzeko loreak landatzen hasi gara. Gero, eskuak garbitzera.

Zein ongi pasa dugun!!!

Berriro ere hurrek izan dira protagonistak eta ikertzeko gogoari esker une polit bat pasatu dugu uste gabeko egoera bati etekin handia aterez. Haurren gozamenak hori islatu digu. Segi honela txikiak....